

HIZKUNTZAK IRAKASTEKO, IKASTEKO ETA EBALUATZEKO MARKOAREN LEGE PROIEKTUA

Iruzur berri baten arriskua aukera bihurtu behar dugu

Urteak dira, LAB, ereduaren hizkuntza politikak haurren euskalduntzeko ESKUBIDEA bermatzen ez zuela salatzen hasi zela. LABek uztartutako arrazoi birengatik salatu izan du urte hauetan zehar ereduaren porrota:

- Alde batetik, haurrek euskalduntzeko ESKUBIDEA dutelako. Hau, neurri handi batean, haur guztiei bermatu ahal izateko, eskolaren bidez egiten da.
- Bestetik, LABentzat helburu estrategikoak diren Euskal Herria euskalduna, lan mundua euskalduna inoiz izango badira, derrigorrezko eskolaldia amaitutakoan gazteek euskara ezagutu eta erabiliko dutenean izango da.

Ereduaren porrotaren salaketa horretan aritu garen eragile bakarrak ez gara izan. Zentzu horretan, 2006an LABek, euskalgintzako eta hezkuntzako beste zenbait eragilerekin batera, ESKOLAK EUSKALDUNDU kanpaina parte hartu zuen. Kanpaina honetan, ereduaren hizkuntza politika aldatu eta benetan haur guztiei euskararen jabe izateko beren ESKUBIDEA bermatuko zien bestelako hizkuntza politika definitzea eskatzen genuen. Bide horretan, 107768 sinadura baino gehiago jaso ziren honen alde. Kanpaina hau berez garaipen handia izan zen; alde batetik, gaia jendearen ahotan jartzea lortu genuelako; eta bestetik, haur guztiak euskaldun izateko duten eskubideaz, eta eskubide hau eskolaratzearen bidez bermatu behar dela jabetzeko balio izan zuen. Hortaz, esan bezala, BEREZ, kanpaina arrakastatsua izan zen.

Orain, Hezkuntza Sailak, irakaskuntzan hizkuntza ereduak arautzeko beste lege egitasmo baten berri eman digu. Geroago zehaztapen teknikoetan azalduko dugun bezala, egitasmo honek elementu interesgarriak ditu, baina berez, ez da nahikoa hurrengo belaunaldien euskalduntzea bermatzeko. Beraz, edo egitasmo honek dituen ilunak konpondu eta falta diren elementuekin osatzen dugu edo bestela, IRUZUR berri baten atarian egon gitezke. Zoritxarrez urte luzeetarako iraungo zuen iruzurra. Jakin badakigu euskalgintzan, gudan bezala eragile askorengan, jarrera eszeptikoa nagusi dela eta lege egitasmoa dagoen bezala eskasa iruditzen zaigula.

Bestalde, lege egitasmoa aurkeztu eta berehala izan diren alderdi eta zenbait sindikaturen jarrera eta adierazpenak ikusirik, LABen ezin gara oso baikor azaldu. PSE eta CCOO zuzenean erasotzen azaldu dira. Eta USTEZ, eta berriro diogu, USTEZ egitasmo honen bultzatzaile den PNVn ere kontrako iritziak entzun ditugu noiznahi. Asteburu honetan bertan azaldu zaigu, Hezkuntza Saila zuzentzen duen EA alderdiaren idazkari nagusia, lege egitasmo honen harira, PNVren baitan, iritzi kontrajarriak daudela esanez; baita bere burua abertzaletzat duen PNVk, lege egitasmoa agintaldi honetan ez aurkezteko saiakerak egiten ari dela. PNVren jarrera da inondik inora ere onartu ezin daitekeena gure ustez. Zertan dabil PNV? Noiz helduko dio PNVk haurrak euskalduntzeko ESKUBIDEA bermatzeko duen ardura eta erantzukizun politikoari? Noiz arte egongo da euskal herritarren eskubideei eta Euskal Herriarentzat estrategikoak diren erabakiei muzin egin eta IRUZURRAK sustatzen?

1.- AURREKARIAK

- 1979ko EAeko autonomia estatutuak, bere 6. artikuluan honako hau zioen: "...euskara, Euskal Herriaren hizkuntza propioa, hizkuntza ofiziala izango dela Euskadin, gaztelania bezala, eta bertako biztanle guztiek dutela hizkuntza horiek jakiteko eta ezagutzeko eskubidea".

- 1982ko euskararen normalizaziorako legean, 5. eta 15. artikuluetan irakaskuntza hizkuntza bietan jasotzeko eskubidea adierazten da.
- 1982. urteko lege berak, 19. artikuluan, hauxe esaten zuen: “irakasleen gaikuntzarako unibertsitate-eskolek irakasleek bere berariazotasunak eskatzen duenaren arabera euskaraz eta gaztelaniaz irakasteko erabat gai izan daitezela lortzeko egokituko dituzte bere ikasketa-egitarauak”.
- 1983. urtean, uztailaren 11ko 138 dekretuaren bidez, hizkuntza ereduak arautu ziren.
- 1993ko Euskal Eskola Publikoaren legean, zera adierazi zen: “...ikasle guztiek, baldintza beretan, derrigorrezko irakaskuntza aldia bukatzean bi hizkuntza ofizialen ezagupen praktikoa izango dutela bermatzea, euskararen erabilera bultzatuz eta normalkuntzari lagunduz”. Eta aurrerago beste hau: “...bi hizkuntzen ahozko zein idatzizko ulermena eta adierazmena benetakoa izan eta gutxienez ohiko harremanetarako eta erabilerako hizkuntza gisa erabili ahal izan dezaten” lortzea.

Beraz, urte luze guzti hauetan, legez, bi hizkuntzen ezagutza helburua izan da, eta 1983. urtetik aurrera helburu hori lortze aldera hizkuntza ereduaren irakaskuntza ezarri zen.

- 2004. urtean, Gasteizko Gobernuak berak egindako ebaluazioak hizkuntza ereduaren sistemak ez duela balio berresten du (aspaldian sindikatu honek eta beste hezkuntzako zein euskalgintzako eragileek adierazitakoa). Aipatutako ebaluazio horretan, Eusko Jaurlaritzak, Europako hizkuntza azterketak erreferente hartuta, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako DBHko ikasleen euskara maila neurtu zuen lehendabiziko aldiz. A ereduko ikasle bakar batek ere ez zuen froga hori gainditu. B ereduan, gazteen %33ak bakarrik, eta D ereduan ikasleen %68ak.
- Lehendabiziko ebaluazio hori 2004. urtean egin zen, hizkuntza ereduaren irakaskuntza ezarri zenetik 21 urtetara. Hizkuntza ereduaren irakaskuntza ezarri zenetik gaurdaino milaka gazte izan dira euskara ezagutu gabe derrigorrezko eskolaldia amaitu dutenak, lege, araubide eta hizkuntza politika ez egokien ondorioak pairatu dituztelarik.

2.- GOGOETA OROKORRAK

- Lehenik eta behin, lege proiektu hau urte luzetako euskalgintza eta hezkuntzako eragileen lanaren ondorioz aurkeztu da, urtetan ezarrita egon den hizkuntza ereduaren irakaskuntzaren porrotaren aurrean Hezkuntza Sailak, Jaurlaritzak, hizkuntzaren politikaren aldaketa bere egin baitu.
- Lege proiektu honek aldaketa gauzatu ahal izateko elementu interesgarriak aurkeztu baditu ere:
 - Orain arteko hizkuntza politikaren porrota, euskaldundu ez den ikasle multzoa ekarri duena.
 - Derrigorrezko eskolaldia amaitzean bi hizkuntza ofizialak menderatzea eskolak bermatu behar duela.
 - Eredu berri horrek egoera bakoitzaren berezitasunera egokitzeko prestatua egon beharko du (ikastetxeen autonomia)
 - Lege proiektuak euskara elementu integratzailea eta erabilera nagusiko hizkuntza eskola bezala definitzen du.
 - Ezagutza mailak eta hizkuntzak erabiltzeko eskubidea bermatzeko hartuko diren neurriak Eskola hizkuntza proiektuan adieraziko direla esaten da.
 - Hizkuntza ikaskuntzarako zerbitzuaren sorrera.

- Elementu hauek, berez, ez dute hurrengo belaunaldien euskalduntzea bermatuko, legean bertan, eta ondorengo garapenean osatu gabe edota falta diren beste elementu batzuk jasotzen ez badira. Sarreran erakutsi dugun moduan, azkeneko 30 urtetako historian helburuak eta nahiak ez dira erdietsi, ez euskararen ezagutzari eta erabilerari dagokienez bederen, legeetan, araubideetan, helburuak markaturik izan arren. Oraingoan, LABek iruzur berriari atea itxiko dizkion proposamenaren alde lan egingo du, berriro historia errepika ez dadin.
- Zentzu horretan, LABek, lege proiektu honek dituen gabeziak eta hutsuneak salatzen ditugun bitartean, adostasun batera iristeko borondate osoa duela adierazten dugu. LABentzat, iruzur berri baten arriskua aukera bihurtu behar dugu. Ildo horretan, ñabarduraz ñabardura, irakurketa berdintsua egiten duen eragile ororekin elkarlanean aritzeko gure konpromisoa berretsi egiten dugu, iruzurrari atea itxiko dizkion proposamena aldarrikatu eta defenda dezagun. Modu berean, Hezkuntza Sailarekin ere lan egiteko prest gaude, benetan euskaldundu egingo duen proposamenari heltzeko prest badira behintzat. Hezkuntza Sailak jakin behar du zeri heldu: iruzur berriari edo aukera emateari.

3.- LABek HIZKUNTZAK IRAKASTEKO, IKASTEKO ETA EBALUATZEKO MARKOAREN LEGE PROIEKTUARI EGITEN DIZKION EKARPENAK

LABek 2006. urtean Irakaskuntza euskalduntzeko borobildu zuen proposamenean oinarriturik datoz **ondoko ekarpen, inplementazio neurriak.**

- Lege proiektuak urte anitzeko aurrekontua jaso beharko luke: bestelako metodologia, ikasle talde kopuru txikiagoak, prestakuntzarako, euskalduntzerako, beste eragileekin elkar lanean aritzeko, ...
- Marko legearen proiektuan agertzen den portzentaia desagertzea, hezkuntza sistema osorako hezkuntza eredu bakarra ezarriz, hizkuntza-murgiltze metodologi argian eta espezifikoa oinarritua (oraingo D ereduaren bertsio ondua). Eredu bakar honek hizkuntza ez formalaren lanketa ere bideratu beharko luke, ikasleek bizitzaren eremu guztietan, ez soilik akademikoetan, komunikazio baliabideak izan ditzaten. Eredu bakar honetan ikastetxeek euren autonomia erabiliz aukera edukiko lukete irakasgai bat beste hizkuntzaz emateko, edo ikasle etorkinen ama hizkuntzarekiko trataera berezitua izateko (komunitate linguistiko bat kuantitatiboki garrantzitsua denean).
- Lege proiektuak garbi adierazi behar du ikasleek derrigorrezko eskolaldia amaitutakoan B2 maila eskuratu behar dutela.
- Lege proiektuak kontratazio berrietaz hitz egiten duenean, irakasle kontratatu berriak bai publikoan bai itunpekoetan euskaraz nahiz gaztelaniaz irakasteko eskatzen den gaitasun maila izan beharko dute, baina ez da zehazten zein izango den gaitasun maila hori. LABek egungo EGA edo bere baliokideren bat agertzea eskatzen du. Halaber ere, gainontzeko hezkuntza langileen kontratazio berrietaz ez da ezer aipatzen. Ezta jangeletako, garraiotako laguntzailez zein eskolaz kanpoko ekintzetaz arduratzen diren langilez. Irakaskuntza ez formaleko esparrutan, jangelan, eskolaz kanpoko ekintzetan, erabilera sustatzeko esparrutan hain zuzen, egun lanean ari diren langile askok (Hezkuntza Sailekoak zein beste enpresatakoak), baita D ereduko ikastetxetan ere, euskara ez dute ezagutzen, eta langile hauek euskalduntzeko ez da ezer proposatzen.
- Lege proiektu honek esku hartze ildoak jaso beharko luke, 1982. urteko euskararen normalizaziorako legeak jasotzen zuena, alegia, Irakasle eskoletatik aterako diren irakasle gai berri guztiek gaitasuna eduki behar zutela bi hizkuntzetan irakatsi ahal izateko. Modu berean, beste esku hartze ildoak Bigarren Hezkuntzako irakasleek izan nahi dutenek gradu ondoko masterra amaitutakoan klaseak euskaraz emateko gaitasuna izan dezaten. Zer esanik ez, Lanbide Heziketako Haur Hezkuntzako goi mailako zikloaren eskaintza osoa euskaraz izan dezan.

- Lege proiektu honek bere baitan Haur Hezkuntza osoa barnebildu behar du. Lege proiektu honek bere ezarpenean ezin du kanpo utzi haurren garapenean, haurrek hizkuntzak bereganatze aldera erabat funtsezkoa den Haur Hezkuntzako lehen zikloa.
- Eredu berriaren ezarpen aldiak amaiera data eduki behar du, erreforma bere osotasunean aztertu, ebaluatu, eta beharko balitz beste markoa proposatzeko. LABentzat ezarpen aldiko lehendabiziko urtean Haur Hezkuntza osoan (0-6) eta Lehen Hezkuntzako lehen mailan abian jarri beharko litzateke, eta eredu berriaren amaiera data Haur Hezkuntzako 0-1 urteko haurrak DBH amaitutakoan litzateke. Beraz, 16 urte.
- Ez dugu bat egiten lege proiektuan agertzen diren bi kontzeptuekin: gizarte elebidun kontzeptua, eta herritar eleanitzaren kontzeptuarekin. Lehena, gizarte elebidunena, fikzioa delako, errealia ez delako, gizarte elebidunik inon ez delako. Eta bigarrenean, ikasle euskaldun eleanitzak, herritar euskaldun eleanitzaren kontzeptua lehenesten dugulako. Euskalduntzerik ez dago euskal kulturaren euskal curriculumean hezi ezik.
- Gure ustez ere, planteatzen diren ebaluazio uneak ez dira aski, eta kasu askotan beranduegi izan daiteke neurri zuzentzaileak ezarri ahal izateko. Zentzu horretan Haur Hezkuntzan amaitutakoan zein Lehen Hezkuntzako lehen mailan egitea proposatzen dugu.
- Lege proiektuaren deklarazio intentzioetan gizarte osoaren eginkizuna izan behar duela esaten bada ere, ondoren gizarteko beste eragileekin, Udalekin, Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin elkar lanean aritzeko ez da ezer planteatzen. Dokumentuan erabileraz hitz egiten da, baina proposamenik ez. Familiak euskalduntze prozesuan jokatu beharreko paperaz ez da ezer agertzen.
- Hizkuntza zerbitzuaren sorrera proposatzen da, baina inongo aipamenik beste euskal herrialdetan diharduten instituzio, hezkuntza-hizkuntza eragileekiko elkarlana.
- Fase berrian langileen hasierako eta etengabeko prestakuntzaz, IRALeZ, ezer gutxi agertzen da.
- Proposamena oso iluna da euskalduntze prozesuetan atzeratuen dauden hezkuntza eskaintzetaz: lanbide heziketa, musika kontserbatorioak, Helduen Heziketa, hizkuntza ofizialetako eskolak, Urruneko irakaskuntza. Proposamena lanbide Heziketara iristeko 12 urte beharko dira. Bitartean zer egingo dugu lanbide heziketa euskalduntzeko?
- Hizkuntza ereduaren irakaskuntza ezarri zenetik milaka gazte eskolatik atera da euskara ezagutu gabe. Ezarpena proposatzen den eran, hurrengo urtetan ere euskara ezagutuko ez duten gazteak eskoletatik aterako dira. Kaltetu hauentzat guztientzat ez al dugu ezer proposatu behar, euskalduntzeari hel diezaioten?

Adierazi dugun bezala, iruzur berri baten aurrean ez egoteko ahaleginduko gara, iruzurra aukera bilakatzen saiatuko gara, belaunaldi berrien hizkuntza eskubideak aitorturik eta errespetaturik izan daitezen.